


Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Ekonomiaren bilakaera negatiboa

47.400 lanpostu suntsitu dira

**229.189 pertsona langabezian
izena emanda**

**Sinatzen diren kontratuen
%93,8a behin-behinekoak dira**

**Erregulazio espediente eta
konkursoak areagotzen ari dira**

**Langabeen erdiak ez du
prestaziorik jasotzen**

KPIaren bilakaera negatiboa

Hego Euskal Herriko (*) lan- eta ekonomi-egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (**)			
JARDUERA TASA (%)	74,1	2013ko III. HIRUHILEKOA	74,9
JARDUERA TASA 28-EUOPAR BATASUNEAN (%)	71,9	2013ko II. HIRUHILEKOA	71,6
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.070.000	2013ko III. HIRUHILEKOA	1.117.300
SOLDATAKO BIZTANLERIA	893.900	2013ko III. HIRUHILEKOA	920.900
ALDI BATERAKO ENPLEGU TASA (%)	20,8	2013ko III. HIRUHILEKOA	22
ALDI BATERAKO TASA 28-EUOPAR BATASUNEAN (%)	13,8	2013ko II. HIRUHILEKOA	13,8
BIZTANLERIA LANGABETUA	211.000	2013ko III. HIRUHILEKOA	203.700
LANGABEZIA TASA (%)	16,5	2013ko III. HIRUHILEKOA	15,4
LANGABEZIA TASA 28-EUOPAR BATASUNEAN (%)	10,9	2013ko II. HIRUHILEKOA	10,4
GAZTEEN LANGABEZIA TASA (%)	44,9	2013ko III. HIRUHILEKOA	39,8
GAZTEEN LANGABEZIA TASA 28-EUOPAR BATASUNEAN (%)	23,1	2013ko II. HIRUHILEKOA	22,5
EMAKUMEEN LANGABEZIA TASA (%)	17,5	2013ko III. HIRUHILEKOA	15,5
EMAKUMEEN LANGABEZIA TASA 28-EUOPAR BATASUNEAN (%)	10,9	2013ko II. HIRUHILEKOA	10,4
SINATURIKO KONTRATUAK	781.959	2013ko URTARRILA-URRIA	739.127
KONTRATATU MUGAGABEAK	48.606	2013ko URTARRILA-URRIA	46.625
ENPLEGU ERREGULAZIOA			
ONARTURIKO FITXAK	1.341	2013ko URTARRILA-MARTXOA	967
ERAGINDAKO LANGILEAK	23.665	2013ko URTARRILA-MARTXOA	14.788
ESKAINNTZA ETA ESKARIA			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	-1,8	2013ko IRAILA	-7,6
BPGd EAEn (%ALD.)	-1,1	2013ko III. HIRUHILEKOA	-2
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	-1,3	2013ko III. HIRUHILEKOA	-1,8
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-1,2	2013ko III. HIRUHILEKOA	-1,7
BPGd 28-EUOPAR BATASUNEAN (%ALD.)	0,1	2013ko III. HIRUHILEKOA	-0,4
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	-0,1	2013ko URRIA	3,5
URTEARTEKO KPIa 28-EUOPAR BATASUNEAN (%ALD.)	1,3	2013ko IRAILA	2,7
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>** Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2013/11/14ean eguneraturiko informazioarekin</p>			



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Ekonomia etengabeko beherakadan.....4
2. 47.400 enplegu suntsitu dira azken urtean.....4
3. 229.189 pertsona, langabezia zerrendetan.....5
4. Sinatzen diren kontratuen %93,8 aldi baterako dira.....5
5. EEE eta konkurtso gehiago enpresetan6
6. Langabeen erdiak ez du prestaziorik jasotzen.....7
7. KPIaren bilakera negatiboa.....7
8. Gure diru-sarrera publikoak, Europako azken postuetan8

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Beste batzuen artean, enpleguaren bilakaera eta langabeen egoera aztertzen dira egoeraren azterketa honetan, eta baita ekonomiaren bilakaera ere.

** Txosten hau 2013ko azaroaren 14an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

1. Ekonomia etengabeko beherakadan

Barne Produktu Gordina (BPGd) balio negatiboak izaten ari da 2013ko hirugarren hiruhilekoan, 2012an hasitako bilakaera txarrari jarraituz.

Herrialdeka, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) BPGd-aren datu aurreratuak %1,1eko urtearteko jaitsiera izan du 2013ko hirugarren hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoan ere urtearteko aldaketa tasa negatiboa izan zuen, %1,5a jaitsi baitzen.


Nafarroako BPGd-aren datu aurreratuak ere balio negatiboa erakusten du, %1,3a jaitsi baitzen 2013ko hirugarren hiruhilekoan, aurrekoan %1,6ko jaitsiera izan eta gero.

BPGd-a osagaika aztertuz, 2013ko hirugarren hiruhilekoan etxeetako azken gastua jaitsi egin da bai EAEn (%1,3), bai Nafarroan (%2,1 bigarren hiruhilekoan, dugun azken datua) erakusten digu. Hau da, etxeen azken gastua BPGa baino gehiago jaitsi da kasu bietan.

Espainiar estatuan ere urtearteko hazkunde tasa negatiboa da, %1,2a jaitsi delarik. Estatuko ekonomiak ez du hazkunderik izan 2011ko bigarren hiruhilekotik.

Europako testuinguruan, ekonomia 0,1 puntu hazi da 2013ko hirugarren hiruhilekoan, 3 hiruhilekotan jarraian jaitsierak izan eta gero.

BPGa merkatu prezioetan, urtearteko hazkunde tasak (%). 28-EB, 2012/II.H - 2013/III.-H



Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN, INE

2. 47.400 enplegu suntsitu dira azken urtean

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) datuek adierazten dute Hego Euskal Herriko jarduera-tasa (honek neurtzen du biztanleriaren zer ehunekok duen enplegua edo ari den aktiboki lan bila) %74,1 izan dela 2013ko hirugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu gutxiago, eta urtebete lehenago baino 0,5 puntu gutxiago. Honek esan nahi du azken urtean 40.100 pertsonen lana izateari edo lana aktiboki bilatzeari utzi diotela, 14.900ek 2013ko bigarren hiruhilekotik.

Sexuen arabera, gizonen jarduera-tasa %80,3 izan da (0,3 puntu jaitsi da azken urtean), eta emakumezkoena, berriz, %68,1 (duela urte bat baino 1,1 puntu gutxiago).

28-EBn, tasa hori %77,8 izan da 2013ko bigarren hiruhilekoan; hau da, 0,7 puntu jaitsi da aurreko hiruhilekotik.

Lanean ari den biztanleria 1.069.900 lagunez osatua egon da 2013ko hirugarren hiruhilekoan; horrek esan nahi du 16.100 enplegu gutxiago direla aurreko hiruhilekoan baino. Enpleguen %54,2 gizonen eskuetan zeuden, eta gainontzeko %45,8, emakumeen eskuetan. Azken urtean 47.400 enplegu suntsitu dira azken urtean.

Lana duen biztanleria sektoreen arabera aztertzen badugu, 26.300 lagun aritu dira lanean lehen sektorean (lana duen biztanleriaren %2,5a); 69.900 lagun, eraikuntzan (%6,5); 236.800 lagun, industrian (%22,1), eta 736.900, zerbitzuetan (%68,9).

Urteko bilakaerari dagokionez, lehen sektorea eta eraikuntza izan dira emaitza positiboa izan duten bakarrak. Hain zuzen, lehen sektoreak duela urtebete baino 4.000 enplegu gehiago dauzka, eta eraikuntzak 4.400 gehiago. Baina beste bi sektoreetan (industrian eta zerbitzuetan) askoz lanpostu gehiago suntsitu da. Industria sektoreak 8.800 enplegu galdu dituen bitartean, zerbitzuetan 46.900 enplegu suntsitu dira azken urtean.

Soldatapeko biztanleria 893.900 lagunez osatua egon da, hau da, soldatapeko 9.800 enplegu gutxiago zeuden aurreko hiruhilekoan baino.



Guztietatik, %51,7 gizonetzkoak izan dira, eta %48,3 emakumezkoak. Azken urtean 27.000 enplegu galdu dira soldatapekoen artean.

Biztanleria langabea bestalde, BAiren arabera, 211.000 lagunez osatua egon da 2013ko hirugarren hiruhilekoan, hiru hilean 1.300 lagunetan gora egin ondoren. Horrela, langabeen %50,8 gizonetzkoak dira, eta %49,2 emakumezkoak. Azken urtebetean langabe kopurua 7.300 lagunetan hazi da.

BAiren araberrako langabezia-tasa %16,5ekoa da, azken hiruhilekoan 0,3 puntu hazi ondoren, eta azken urtean 1,1 puntu handitu ondoren. Emakumezkoen langabezia-tasa %17,5ean dago, 2 puntu hazi baita azken urtean. Eta gazteen arteko tasa %44,9koa da. Langabezia tasa askoz gehiago haziko zatekeen biztanleria aktiboa jaitzi ez balitz.

Europako langabezia tasa %11koa izan da irailean. Gazteen arteko tasa %22,2koa da (HEHan baino 22,7 puntu txikiagoa), eta emakumezkoen langabezia tasa %10,9koa da, HEHan baino 6,6 puntu gutxiago.

Iraupen luzeko langabezia egoeran dagoen jende kopurua 2013ko hirugarren hiruhilekoan 116.200ekoa izan da BAiren arabera. Hau da, langabetuen %55,1ak urte bat baino gehiago darama langabezia egoeran HEHan. Gainera bilakaerak erakusten du azken urtean hazi egin dela egoera honetan dagoen pertsona kopurua 16.200 lagunetan (100.000tik 116.200era pasaz).

3. 229.189 pertsona, langabezia zerrendetan

Enplegu Zerbitzu Publiko estatalaren (SEPE) datuek adierazten dutenez, 2013ko urrian HEHn langabeen zerrendetan 229.189 pertsona zeuden izena emanda, hots, azken hilabeteetan 2.296 langabe gehiago azken hilabeteetan eta 10.189 gehiago, 2012ko urritik hona.

Langabezia tasa SEPEko langabe kopuruaren arabera kalkulatu gero, %17,9an dago, EB-28ko batez besteko mailatik 6,9 puntu gorago alegia. Gainera, langabeziaren bilakaera HEHn Europan baino okerragoa da: Azken urtean HEHn

langabezia tasa 1,3 puntu gehitu da (2012ko %16,6tik 2013ko urriko %17,9ra), eta EB-28an, berriz, 0,4 puntu baino ez (%10,6an zegoen 2012ko irailean, eta %11n, 2013ko irailean).

Sexuka, langabeziako zerrendetan izena emanda dauden pertsonen %51,4 emakumeak dira (117.893), eta %48,6 gizonetzkoak (111.296).

Sektoreka, SEPEn izena emandako pertsonen %63,4 zerbitzuen sektorekoa da (145.276); %15, industriakoa (34.355); %11, eraikuntzakoa, (25.297), eta %2,3, lehen sektorekoa (5.167). Izena emanda zeuden pertsonen gainerako %8,3ak lehenago ez zuen enplegurik izan.

4. Sinatzen diren kontratuen %93,8 aldi baterako dira

BAik ematen duen aldi baterako enplegu tasa 2013ko hirugarren hiruhilekoan %20,8an kokatu da. Gizonetzkoen tasa %17,8an dago, eta aldiz emakumeena %23,9koa.

Aldi baterako enplegu tasa azken urtean 1,2 puntu jaitzi da, 2012ko hirugarren hiruhilekoan zegoen %22tik aurtengo epe berdineko %20,8ra. Honen arrazoia izan da aldi baterako kontratua zuen langile asko kaleratu egin dituztela, izan ere, 2012an aldi baterako soldatapekoak 202.600 baitziren, eta 2013ko hirugarren hiruhilekoan 185.500, hots, 17.100 gutxiago.

Epe berean gizonetzkoen aldi baterako enplegu tasa 0,4 puntu gehitu da (%17,4tik %17,8raino), eta aldiz, emakumeena 2,9 murriztu (%26,8tik %23,9ra).

Gazteen aldi baterako enplegu tasa ia ez da aldatu: 2013ko hirugarren hiruhilekoan %70,2an zegoen, duela urtebete baino 0,1 puntu gutxiago.

Aldi baterako enplegua EB-28ko batez besteko maila (%13,8) baino 7 puntu handiagoa da. Europar Batasunean aldi baterako kontratua duten emakumeak %14,3 dira (HEHn baino 9,6 puntu gutxiago), eta gazteen aldi baterako enplegu tasa %42,5koa da (HEHn baino 27,7 puntu gutxiago).

Urtarrila eta urria bitartean erregistratutako kontratuak HEHn 781.959 izan dira, horietatik %93,8 aldi baterakoak.

5. EEE eta konkurtso gehiago enpresetan

2013ko lehen hiru hiletan (Enplegu eta Gizarte-Segurantzako Ministerioak eman duen azken datua) enplegua erregulatzeko 1.341 espediente (EEE) komunikatu dira Hego Euskal Herrian, hots, iazko epe berean baino 374 gehiago (orduan 967 espediente izan ziren).

Espedienteek 23.665 pertsonarengan izan dute eragina, 2012ko epe berean baino 8.877 gehiago (orduan 14.788 langileri eragin zieten). Hauetatik 18.916k (guztirako kopuruaren %79,9ak) aldi baterako neurriak jasan dituzte, 2.924k (%12,4ak) lanaldia murrizteko neurriak, eta 1.825ek (%7,7ak) kontratua iraungitzea behin betikoak.

Onartutako enplegua erregulatzeko espedienteak eta HEHn eragindako pertsonak (2012-2013 lehen hiruhilekoa)

	2012-I	2013-I
Onartutako espedienteak	967	1.341
Eragindako pertsonak	14.788	23.665
Etenaldiak eragindako pertsonak	11.492	18.916
Murrizketak eragindako pertsonak	1.768	2.924
Kontratua iraungitutako pertsonak	1.528	1.825

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen erregulazio espedienteen datuek erakusten dutenez, onartutako edo jakinarazitako espediente kopurua 2.046koa izan da urriraino. Hauetatik 1.233 lanaldia etetekoak izan dira; 711, lanaldia murrizteko espedienteak, eta 102, kontratua desegitekoak. Espedienteen %84,8a (2.046tik 1.734) 25 langile baino gutxiago dituzten enpresetan eman dira.

Espediente guztien artean, 2.033 baimenduak izan dira, hauetatik 1.866 adostutakoak (%91,8). Hau da, Eusko Jaurlaritzak 2013an zehar adostasunik ez zuten 167 espediente onartu ditu.

Espediente hauen %44,5a zerbitzuen sektorean eman da (911); %39,7a, industrian (811), eta %15,8a, eraikuntzan (323). Lehen sektorean 2013an zehar espediente bakarra izan da.

EEEk 27.665 pertsonari eragin dio. Hauetatik 21.230i lanaldia eteteko espedienteak eragin die (%76,7; 4.764ri, lanaldia murrizteko espedienteak (%17,2), eta 1.671 pertsonari kontratua desegin (guztien %6,1).


Nafarroako Gobernuak ematen dituen datuen arabera, berriz, 2013ko irailera arte 499 EEE izan dira. Hauetatik 396 lanaldia eteteko espedienteak izan dira (%79,4); 50, kontratua desegitekoak (%10), eta 53, mistoak, hau da, lanaldia etetekoak eta kontratua desegitekoak (%10,6).

Erregulazio espedienteak eragindako pertsona kopurua 7.609koa izan da urtean zehar. Hauetatik 6.108ri lanaldia eten zaio (%80,3); 866ri, kontratua desegin (%11,4), eta 635i espediente mistoa ezarri diote (%8,3).

Hartzekodunen konkurtsoei dagokienez, 2013ko bigarren hiruhilekoan HEHn 195 sartu dira Merkataritza arloko Auzitegietan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako datuen arabera. Kopuru hau aurtengo lehen hiruhilekoan izan zen berdina dugu; beraz, 390 konkurtso sartu dira.

Halere, azken urteetako bilakaera etengabe gorantz doa. 2012ko lehen sei hiletan 329 konkurtso sartu ziren; ondorioz, aurten %18,5 gehiago izan dira. 2011ko lehen sei hiletan 286 konkurtso sartu ziren, eta ordutik hona %36,4 gehitu dira.

HEH-n aurkeztutako konkurtsoak (2010-2013)



Iturria: BJKN



6. Langabeen erdiak ez du prestaziorik jasotzen


Joan den irailean (hil honi buruzkoak dira argitaratutako azken datuak), Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerrendetan langabe gisa izena emanda zeuden 226.893 pertsonetatik 113.315ek ez zuten prestaziorik jaso. Beraz, langabeen %49,9ak ez du prestazio, ez laguntza bat ere jasotzen.

Langabeen %30,1ak besterik ez du langabeziako kotizaziopeko prestazioa jaso. Prestazio hau jasotzeko eskubidea izateko hainbat baldintza dira beharrezkoak, eta prestazioaren zenbatekoa eta iraupena onuradun bakoitzak egindako kotizazioen arabera izango da.

Langabeen %19,9ak, aldiz, kotizaziopeko ez den prestazio bat jasotzen du: langabeentzako laguntza edota laneratzeko errenta aktiboa. Hau asistentzialak da, eta oso kopuru eskasekoak, kotizaziopeko prestazioa baino askoz txikiagoa.

Azken urtean HEHn prestazio bat ere ez duen pertsona multzoa 4,8 puntu hazi da, %45,1etik %49,9raino. Kotizaziopeko prestazioa jasotzen duen pertsona kopurua %3,9 murriztu da (%34tik %30,1ra), eta kotizaziopeko ez diren prestazioa dutenena puntu bete jaitzi da (%20,9tik %19,9ra).

Langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonak (%). HEH, 2013ko iraila



Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa


7. KPlaren bilakera negatiboa

Urtearteko KPIa %0,1ean kokatu zen 2013ko urrian espainiar Estatuan. Hileko bilakaerak 0,4 puntutako jaitsiera erakusten du, KPlaren bilakaera %0,3koa izan baitzen irailean.

28-EBko KPI aurreratuaren hazkundea %1,3koa izan da 2013ko irailean, abuztuan %1,5a hazi ondoren.

Ondorengo grafikoan KPlaren bilakaera ikusten da 2012ko hasieratik. Estatu mailako prezio aldaketa Europakoa baino aldakorragoa dela ikus daiteke. 28-EBko KPIa mantendu egiten da 2012ko hasierako 2,9 eta joan den iraileko 1,3 artean (1,6 puntuko aldea). Estatu mailan, aldiz, prezioen aldaketa 2012ko urriko 3,5 puntuko igoeratik 2013ko urriko 0,1 puntuko jaitsiera bitartean kokatzen da (3,6 puntuko aldea).

KPlaren urtearteko hazkundea (%). 28-EB, Espainiar Estatu, 2012-2013



Iturriak: Eurostat, INE

8. Gure diru-sarrera publikoak, Europako azken postuetan

Duela gutxi Eurostatek Europar Batasuneko estatuen kontu publikoen azterketa argitaratu du, eta horrek inguruko lurraldeekin egoera alderatzeko aukera ematen digu.

Ohikoa den bezala, espainiar estatua 2012an gastu publikoan batezbesteko mailatik behera geratu da (hori da datuak argitaratu diren azken urtea), barne produktu gordinaren (BPGd) %47,8 erabili zelarik. Bestalde, EB-28ko batezbesteko gastu publikoa BPGd-aren %49,3koa izan da (1,5 puntu gehiago). Euroguneko gastu publikoa zertxobait handiagoa da, BPGd-aren %49,9koa (espainiar estatukoa baino 2,1 puntu gorago).

Bilakaerari dagokionez, espainiar estatuan gastu publikoa BPGd-arekiko 2,1 puntu gehitu da, eta 1,6 puntu, 2009koaren aldean. Hazkunde hau ez da gastu publikoa eurotan gehitzearen ondorioz gertatu, BPGd-aren beherakada medio baizik.

Gastu handiena duten estatuekiko aldea oso handia da. EB-28ko gastu publikorik handiena duen estatua Danimarka da, BPGd-aren %59,5arekin, eta ondoren frantses estatua eta Finlandia (biek ere %56,6a dutelarik). Gastu publikorik txikiena duen estatua Irlanda da (%42,6), ondoren Luxenburgo (%44,3) eta Alemania (%44,7) daudelarik.

Alde horrek esan nahi du espainiar estatuko gastu publikoa batezbesteko maila europarreraino gehituz gero (BPGko 1,5 puntu) 15.435,03 milioi euro gehiago gastatuko litzatekeela.

Defizit kontuan, berriz, tasarik handiena honakoek dute: espainiar estatuak, %10,6arekin, Greziak (%9,0), Irlandak (%8,2) eta Portugalek (%6,4). EB-28ko batezbesteko maila %3,9an dago.

Desberdintasunik nabarmenena diru-sarrera publikoetan datza. Espainiar estatuak BPGaren %37,1 jasotzen du, eta batezbesteko maila europarra %46,3koa da. 9,2 puntuko alde honek esan nahi du espainiar estatuak diru-sarrera publikoan batezbesteko maila europarra iritsiko balu urtean 94.668,19 milioi euro gehiago bilduko lukeela. Bestalde, diru-sarrera publikoak maila

europarrera eramenez gero defizita (BPGaren 10,6 puntutan dagoena) BPGaren %1,4raino jaitsiko litzateke, hots, EB-28ko batezbestekotik (%3,9) askoz beherago.

Beraz, datuok hainbat ondorio ateratzeko aukera ematen digute; lehenik, BPGarekiko diru-sarrera portzentajerik txikiena duten lurraldeak ari dira estuasunik handienak izaten (Irlanda, espainiar estatua, Portugal...). Bigarrenik, defizitaren auzia -governu guztiak egiten ari diren murrizketa latzen ustezko arrazoia- diru-sarrera txikiagoak dituzten lurraldeetan gertatzen da, ez gastu publiko mailarik altuena dutenetan.

Horrenbestez, ondoriozta daiteke arazoa ez dela gastu publiko handia izatea, diru-sarrera urriak baizik.

Diru-sarrera publikoak, gastu publikoa eta defizita, EB-28 (BPGd%), 2012

	Sarrerak	Gastu Publikoa	Defizita
Danimarka	55,3	59,5	4,1
Finlandia	54,4	56,6	1,8
Frantziar Estatua	51,8	56,6	4,8
Suedia	51,6	52,0	0,2
Belgika	51,0	55,0	4,0
Austria	49,2	51,7	2,5
Italia	47,7	50,6	3,0
Herbehereak	46,4	50,4	4,1
28-EB	46,3	49,3	3,9
Euro-Gunea	45,4	49,9	3,7
Alemania	44,8	44,7	-0,1
Grezia	44,6	53,6	9,0
Luxenburgo	43,7	44,3	0,6
Erresuma Batua	41,8	47,9	6,1
Portugal	40,9	47,4	6,4
Espainiar Estatua	37,1	47,8	10,6
Irlanda	34,5	42,6	8,2

Iturria: Eurostat